



## EMAKUME BASERRITARREN ESTATUTUA:

Baliagarria izateko,  
baliabide faltan

Koordinazioa eta berrikuspena: **EHNE Bizkaia**  
Ikerketa eta idazketa: **Alazne Intxauspe** eta **Landalore**  
Diseinua eta edizioa: **Baserripress, S.L.**

Euskal Herria, 2023

Informazio gehiago webgunean: <https://www.ehnebizkaia.eus>  
(Argitalpena online doan deskargatzeko).

Lan hau *Creative Commons* lizentziapean dago.

Aitorpena (by): Egiletza aipatzen den guztietan, obraren edozein ustiapen baimentzen da, helburu komertzial bat barne, baita obra eratorriak sortzea ere, eta horiek banatzea ere baimenduta dago, inolako murrizketarik gabe.

Finantzatzailea:



# AURKIBIDEA

1. Egungo argazki bat.....	4
2. Historia pixka bat.....	6
3. Nekazal Lege berri baten aldeko proposamaren baitan.....	9
4. Neurri zehatzak dituen Emakume Baserritarren Estatutuaren eskaria.....	11
5. 2008an Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako Legea onartu zen EAEn.....	13
6. Eta 7 urte beranduago.....	15
7. Indarrean sartu zenetik hamar urterantza goazen honetan.....	17
8. Azken burukoa.....	23
9. Estatutua garatzeko proposamen zehatz batzuk.....	25



# 1. Egungo argazki bat...

Landa eremuko biztaleen % 49 a dira emakumeak eta orain arteko tendentziatik aldentuz, landa eremua ez da zaharkituagoa azaltzen eremu urbanoaren aldean. Landa eremuko emakumeen % 22a da 65 urtetik gorakoa eta aldiz, eremu urbanoan 65 urtetik gora emakumeen % 26ak du. Aipagarria da era berean, landa eremuko emakumeen % 16 a dela 15 urtetik beherakoa eta eremu urbanoan aldiz, emakumeen %13 ak dituela 15 urte baino gutxiago.

Ikasketei dagokienez, landa eremuko emakumeek eremu urbanoko emakumeen ikasketa maila antzerakoa dute eta bai landa eremuko zein eremu urbanoko gizona baina altuagoa da.

Landa eremuko emakumeek, gizonen baina bi ordu gehiago erabiltzen dituzte egunean lanerako; lan ordaindua, etxekoa zein zaintza lanak kontuan hartuta. Azken lau urteetan batez ere lan ordaindaietan eta zaintza lanetan lanetan igoera nabarmentzen da.

Landa eremuko emakumeek norbere zaintzarako edo beharretarako eremu urbanoko emakumeek baino denbora gutxiago hartzen dute, eta zer esanik ez noski gizonekin alderatuz gero.

Zaintza lanak dira landa eremuko emakumeen denbora gehien kentzeko dietenak; egunero ordu eta erdi erabiltzen dutelarik zaintza lanetan, eremu urbanoko emakumeek 30 minutu erabiltzen dituzten bitartean eta gizonen berriz eguneko 12 minutu.

Joan-etorrietan eman beharreko denbora, azken urteetan beherako

joeran doan arren, oraindik ere landa eremuko emakumeentzat eragozpena da. Zerbitzuak gerturago ez izateak, **garraioan gastu handiagoa izatea suposatzen dio landa eremuari** eremu urbanoaren aldean. Honi gehitu behar zaio, landa eremuko emakumeen %30k ez duela ibilgailu propioirik (gizonen kasuan %10 a da) eta honek mugitu ahal izateko beste pertsona batzuen menpeko egiten ditu. Egoera honetan aurkitzen diren emakume gehienak etxeko andreak eta adinekoak dira.

Ordaindutako okupazioa aztertuz gero, landa eremuko emakumeen okupazio maila, eremu urbanokoaren antzerakoa da, zerbitzuak izanik landa eremuko emakume gehienak lan egiten duten sektorea.

Landa eremuko emakumeek eremu urbanokoek baino gehiago baloratzen dituzte bertako produktuak edo ekologikoak.

Nekazal sektoreari erreparatuta, **landa eremuko emakumeen %58ak ez du inongo loturarik sektorearekin**, % 30 ak autokontsumoa du lotura eta %12 ak jasotzen ditu lehen sektoretik bere diru sarrera denak edo zati bat.

Datu ofizialek hala ere, kanpoan uzten dituzte besteak beste, urteetan “famili laguntza” moduan baserri eta ustiategietan lanean aritu eta aritzen diren hainbat emakume, euren lanaren aitortzarik egin gabe eta ikusezin eginaz eta era berean eskubiderik gabe utziaz.

Honekin, **nekazal jarduerarekin lotura izan duten, duten eta izango duten emakumeen garrantzia aitortu nahi da**, bai landa eremua bizirik mantentzeko duten funtzioagatik, bai nekazaritza iraunkorraren ereduaren mantentzean duten garrantziagatik, bai eta gure mahaietan elikagai osasuntsuak izateko funtzeskoak izateagatik ere. Eta nola ez, euren aitortza errebindicatzen eta eskubideak defendatzen egin duten lanagatik eta gizarte parekideagoaren eraikuntzan ezinbesteko izateagatik.





## 2. Historia pixka bat...

**H**ego Euskal Herrian, antolatutako emakume baserritarrak 1989. urterako hasi ziren euren lana ikusia eta aitortua izan zedin lanean, ordurako hamabost urtez sortuak zeuden Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna (EHNE) sindikatuen baitan.

EHNE sindikatuak sortu zirenetik, **baserrietan emakumearen lana ezinbestekoa zela** eta gizonek ere horren inguruko gogoeta egin beharra zutela aipatzen zen. Esate baterako, gizonari ere kontzientzia hartzea eskatzen zitzaion, eta lanak partekatzea, adibidez umeak eskolara eramanez... Era horretan, emakumeak denbora pixka bat gehiago izan zezan. Oraindik ere horrek emakumeari denbora asko kentzen baizion. 1980 ko hasierarako hasia zen era honetako diskurtsoa entzuten.

Emakume baserritar hauen iritziz emakumearen lana ez zen errekonozitzen, ez sozioekonomikoki, ez juridiko. Euren esanetan, lehen pausoa hala ere, autoestimua errekuiperatzea zen eta euren arazoez jabetzea. Eta honetan gizonetzkoek ere parte hartu beharra zuten.

**Gizarte Segurantz**an izena eman ahal izatea eta harekin sortzen diren eskubideen onuradun izatea izan da aldarrikapen nagusia historikoki. Emakume asko ez baitzeuden Gizarte Segurantz izena emanak, garestiegi zelako batetik, baina baita horren beharraren kontzientziarik ez zegoelako eta administrazioak berak jartzen zituen oztopoengatik ere bai.

Adibidez, 2002 an salatu zuten **emakumeek altan emateko diskriminazioa** jasaten zutela gizonak etxetik kanpo lan egiten zuen kasu askotan.

Gizonak etxetik kanpo lan eginez gero, baserrikoa lanbide nagusia ez zela esan ohi zieten eta emakumerari altan ematea ukatu egin ohi zioten administrazioaren lehiatilan. Ez zen halakorik gertatzen gizonaren kasuan.

Adibide zehatzagoa emate aldera, Ehneko emakumeek urte horretan salatu zuten azken bi urteetan Arabako Gizarte Segurantzako lurralde delegazioak 30 emakume baserritarrei ukatu ziela Nekazal Gizarte Segurantzako Erregimen Berezian ( espainolez REASS) altan ematea emakume izate soilagatik.

Aipatu behar da, era berean, 1990 eko hamarkada arte ez zegoela legez aukerarik emakumea ustiategiaren titularkide izateko. Horrek esan nahi du, senarra hilez gero edo bananduz gero, emakumea ezer gabe geratzeko arriskuan zegoela.

Honez gain, beste hainbat **arazo eta eginbehar** ere identifikatzen zituzten, nagusien artean ondokoak aipatzen zituztelarik;

- > Ez zutela estatistika eta informazio nahikorik egoera erreala ezagutzeko
- > Zeuden babes legeak ez zituztela ezagutzen borroka egin beharko zutela
- > Formazioaren garrantzia, emakumeek ere baserriko lanbide heziketa egokia behar zutela
- > Eskubide profesional berdinak behar zituztela emakumeek ere; jабegoa eskuratzea, gizonarekin elkarrekin sortzea,...
- > Parte hartze soziala errazteko **azpiegiturak** behar zirela.

Arrasaten 1997an baserriko emakumeei zuzenduriko formazio proiektu batean adibidez, parte hartze handia izan zen eta bertatik ateratako ondorio nagusietakoa, emakumeen baserri auzoetara iritsi beharra zegoela izan zen, baldin eta emakume baserritarren parte hartzea bermatu nahi bazen behintzat. Beraiegana iritsiz gero interesa zutela parte hartzeko, beraien eskubideez jabetzeko, baserriak eskaintzen dituen aukera guztiak aztertzeko eta egon daitezkeen inizatiba berriak ezagutzeko.

Horrez gain, beste ondorio bat izan zen, neurriak jarri behar zirela ins-

tituzioen aldetik **baserriari beste kontsiderazio bat emateko**. Euren hitzetan, baserritarrak eta baserriko emakumeak are gehiago, hirugarren mailako pertsonatzat tratatzen zituen administrazioak.

**Lur eskasiaren** problematika ere mahai gaineratu zen; eta zentzu honetan nekazaritza politiken porrota, industria, etxebizitza eta azpiegiturak lurzorua jaten ari baitziren.

EHNEren inguruan antolatutako emakume baserritarrak baserrian **hartutako ardurak azaleratu eta balioan jarri** nahi ziren: ekoizpenarenak, autokontsumorako lanenak eta animalien zaintza, dibertsifikazioa, salmenta zuzenerako produktuak eraldatzea eta prestatzea, saltzea (azoketan, etxez-etxe,...), diru kontuen kudeaketa eta etxearen eta etxe-koen zaintza. Adierazi ere nahi zuten prestatuak zeudela eta **konpromisoak hartzeko borondatea** zutela. Gizonezkoaren parte hartze ia eksklusiboa zuen sektore batek zituen berezko oztopoak gainditu behar zituztela bazekiten. Konpondu beharreko lehentasunezko gaia izanik familiako arduren banaketa, ardura profesionalekin batera. Eta argi ikusten zuten marko juridikoak ez zuela berdintasuna bermatzen praktikan.

Emakumeentzako **alternatiba ekonomikoak** ere bultzatu nahi zituzten, emakumeen jakintza balorean jarriaz eta honi bide emanaz. Zentzu honetan, administrazioak indarrean jartzen zituen proiektu batzuekiko kritika ere plazaratu zuten Ehneko emakumeek 2001 ean adibidez. Ziotenez, egitasmo hauek emakumea eta haren benetako parte hartzea kontuan hartu gabe prestatzen ziren eta gero ezartzen saiatu.

Ustiategiak hobetzeko eta dibertsifikatzeko proiektuak hasten zituztenak emakumeak beraiek zirela eta emakume baserritarrak aurrera egiteko eta berritzeko duen gaitasunaren aldarria egiten zuten eta zeuden laguntzek ez zutela honetan laguntzen. Era berean, nekazaritzaren intentsifikazioak eta ustiategien espezializazioak, dibertsifikazioa, eraldaketa eta eskala txikiko ekoizpenari egiten zioten kalteaz ohartarazten zuten.

Aldarrikatzen zuten emakume baserritarrek euren lekua behar zutela gizarte justuago batean, baserriaren bideragarritasunean ere pertzepzio desberdina baizuten eta azken finean, lurrraren erabilera arrazional batetik baserriari irtebidea bilatu nahi zioten.





### 3. Nekazal Lege berri baten aldeko proposamenaren baitan...

**2**000 hamarkadako lehen urteetan ari zen gobernua Nekazaritza Lege proposamena aurketzen eta sektorearen zati bat aldiz, lege proposamen harek ez ziela baserritarren beharrei ez eta gizartearenei ere erantzuten ohartarazten. Merkatuaren beharrei bakarrik erantzuten ziela.

2005 eko otsailaren 24 ean EHNE, Gasteizen egindako manifestazioaren karietara, Eusko Jaurlaritzan dokumentu bat entregatu zuen, eta bertan **proposatzen zuen nekazaritza eredu propio bat oinarri hartuko zuen nekazal politika ezberdin baten markoa definituko zuen legea.**

Izan ere, sindikatu honen ustez, kontraesan handia zen kalitatean eta elikadura segurtasunean, animalien ongizatean eta ingurugiroarekiko errespetuan oinarritutako nekazaritza multifuntzionaleko europako eredu defenatzea eta horretarako nekazaritza produktibistenetara, industrialenetara eta intentsiboenetara bideratutako mekanismoak jartzea. Hau da, familiko nekazaritza eredutik urrutien geratzen zirenak

alegia. Eta gogorarazten zuten, nekazaritza familiarra zela, hain zuzen ere, nekazaritza multifuntzionalen egokien txertatzen dena.

Uste zuten **mugak jarri behar zitzaizkiola nekazaritzaren merkantilizazioari**. EHNEn ustez, politika berri honek merkatuari mugak jarri behar zizkion nekazaritza eta elikadurari zegokionean. Lehiakortasun liberalarenei ordez gizarteko helburuei erantzuna emateko.

Horretarako, ekoizpenerako oinarritzko faktore eta bizitzarako ezinbesteko elementu den, **lurrean oinarritutako eredu** baten aldeko apostua egiten zuen. Lurraren funtzio soziala bermatuko zuena eta nekazal ekoizleari lurrerako irisgarritasuna ahalbidetuko ziona.

Ekoizpena barne merkatura bideratuko zuena, landa eremuan lana sortuko zuena eta prezioek ekoizleei euren lanaren ordainsari justu bat ahalbituko ziena. Honetarako, **bitartekaritzako politikak eta politika komertzialak berbideratu** beharra zegoen.

Egoera honetan, sindikatuak, prozesu partehartzaile bat hastea beharrezko ikusten zuen, nekazal sektorean ordezkari zuten agenteekin. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritzako departamentuak egindako aurreproiektua alde batera utzi eta EHNE eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza sailaren artean adostutako oinarriak, 2002ko **“Hacia una nueva Reforma de la PAC. Posición del País Vasco”** dokumentuan jasota geratu zirenak, oinarri eta norabide hartuko zituenak.

Prozesu berri honetatik Nekazaritza eta Elikadura Politika Legea garatu zedin.





## 4. Neurri zehatzak dituen Emakume Baserritarren Estatutuaren eskaria..

**A**ipaturiko Nekazaritza Lege proposamenean ez zen Emakume Baserritarren Estatutu baten proposamenik jasotzen eta jasotzen ziren emakumeentzako neurriak asmo deklarazioak besterik ez ziren EHNEko Emakumeen Arloaren ustez. Emakume Baserritarrek pairatzen zituzten egoerak konpon zitzakeen berdintasun politika baten aldeko neurri ekonomiko eta sozial zehatzak faltan botatzen zituzten.

Emakume hauek, Emakume Baserritarren Estatutuaren beharra defendatzen zuten momentu oro Nekazaritza departamentuaren aurrean, hala nola, berau garatu ahal izateko aurrekontu zehatz batzuk.

Hasiera batean, Nekazaritza sailak bere Nekazal Politikako proiektuan, Emakume Baserritarren Estatutu bat sartzea planteatzen zuen. Estatutu zirriborro bat ere helarazi zien Nekazaritza sailak eta EHNEk aportazio ugari egin zizkion zirriborro honi. Baina azkenean, lege proposamenak ez zuen estatuturik jasotzen, soilik berdintasun printzipio batzuk.

> **71. artikuluan** oinarrizko berdintasun irizpide batzuk jasotzen ziren, dagoeneko Eusko Jaurlaritzak bete beharko litzuzkeenak, besteak beste, onartu berria zen Berdintasuna Legearen baitan. Genero ikuspegia modu transbertsalean betetzera behartzen baitzuen honek.

> **72. artikulua** ekintza positiboen politiken inguruan, zehazki dagoeneko hainbat urtean martxan zeuden teknologia berrien eta informazioaren gizartearen inguruko formazioa aipatzen zuen. Beraz, berrikuntzarik ez zekarrena. Eta laguntzak hobetzearen aukerari

buruz eta ordezkariak hobetzeko mekanismoen garapenari buruz hitz egiten zuten baina neurri hauek betetzeko konpromiso zehatzik azaldu gabe.

> **73. artikulua**, bere aldetik, kotitulartasuna betebeharezkotzak ezartzen zuten Nekazal Ustiatuegi Erregistroan, bi ezkonkideek edo izatezko bikoteko bi kideek era zuzen eta pertsonalean nekazal jarduera egiten bazuten.

Azken puntu honen inguruan, titulartasun partekatua sustatzea positibo ikusten zuten emakumeek baina praktikan neurri honek efektu gutxi zuela egiaztatzen zuten, izan ere, bai Foru Ogasunaren partetik bai eta Eskubide Zibilaren partetik errekonozumendu falta baitzegoen.

Hau dela eta, Ehneko emakumeek gobernuak martxan jarria zuten Landa eremuko Emakumearen Mahaian parte hartzeari utzi zioten, Nekazaritza departamentuaren konpromezua eta foro horren zentzua argitu artean. Izan ere, ikusirik egiten zituzten aportazioak ez zirela jasotzen, ulertzen zuten Nekazaritza sailetik sortutako kritikotasunik gabeko foro bat besterik ez zela hura eta bere helburu bakarra dagoeneko diseinatuta eta definitua zegoen politika bati babes ematea zela.

Beraz, Lege proposamen hau bere horretan onartua izanez gero emakume baserritarrentzako ez lan aukeretan ez eta gizarteko aukeretan hobekuntzarik ez zuela ekarriko irizten zioten. Besteak beste, amatasunean ordezkari zerbiztuaren eta lurralde bakoitzean emakumeen egoera legalaren inguruko gaiak jorratzea nahi zuten beraiek.

Euren ustez, emakume baserritarren eta landa eremuko emakumeen ordezkariak zuten entitateek nekazal politikaren diseinuan parte hartu behar zuten, era argian, ardurak ezberdinduaz, helburuak zehaztuaz eta parte hartze horren forma definituaz.

Berdintasunaren aldeko Nekazal Politika baten diseinuak parte hartzailea behar zuten izan, aurrekontu eta neurri ekonomiko eraginkorrak zituena.



## 5. 2008an Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako Legea onartu zen EAEn

**2**008an 17/2008 Legea, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politika onartzen da Eusko Legebiltzarrean. Lege honen II. Kapitulua Emakume Baserritarrari buruzkoa da eta bertan jasotzen da genero-berdintasuna gogoan hartuta jokatu behar dutela nekazaritza-arloko euskal administrazioek.

Kapitulu horretan jasotzen da **75. artikulua**. *Emakume Baserritarren Estatutua, eta ekintza positiboak bultzatzeko politikak*. Bertan dio, nekazaritza-arloko euskal administrazioek Emakume Baserritarren Estatutua sortuko dutela. Estatutua arau-emailea izango dela, eta emakume baserritarrei laguntzeko zein ekintza bultzatu behar diren arautuko duela. Besteak beste:

- > Prestakuntza-programa bereziak sortzea, bereiziki erreparatuaz bai teknologia berriei bai informazioaren gizartearen inguruko prestakuntzari.
- > Dirulaguntzei lehentasuna eman eta inbertsioak finantzatzen la-

guntzea familiako ustiategiei, titulartasuna emakume batek hartu behar badu.

- > Kudeaketa-organo publiko nahiz pribatuetan ordezkaritza handiago izateko mekanismoak sortzea.
- > Lana eta familia uztartzea: horretarako, kontuan hartuaz haurdunaldia eta amatasuna, baimenak eta lizentziak, eta familiari laguntzeko zerbitzuak.

**76. artikulua** berriaz Titulartasun partekatuari buruzkoa da. Bertan jasotzen da, titulartasun fisikoko ustiategi erregistratu batean zuzenean eta pertsonalki bi ezkonkideek egiten badute lan, edo izatezko bikoteko bi kideek, ustiategi horren titulartasunak **titulartasun partekatua** irudi juridikoa izango duela.

Irudi juridiko hori duten ustiategiko kideek, ezinbestean, EAEko Nekazaritza Ustiategien Erregistroan eman behar dutela izena eta ustiategiaren titulartasunak ematen dituen eskubide eta betebeharrak guztiak izango dituztela. Ustiategiaren titularrari dagozkion laguntza, eskubide, kuota etabak titular-kide bakoitzarentzat izango direlarik, ustiategiaren daukaten partaidetzaren arabera baldintza eta mugetan. Hala nola, ustiategiaren titulartasunak dakartzan ondorio sozial, laneko, ekonomiko, fiskal eta bestelakoak ere.





## 6. Eta 7 urte beranduago...

**2**015 eko urriaren 15ean, Eusko Legebiltzarrean **8/2015 Legea, Emakume Baserritarren Estatutuari** buruzkoa onartzen da. Abiapuntuan emakume baserritarren eskubideak egonik, eskubide horiek egiaz gauzatzea bermatzeko herri-administrazioek dituzten betebeharrak zehazten ditu.

Aitortzen du historian zehar emakumeek jasan duten bereizkeria islatu egiten dela emakume baserritar askoren egungo egoeran. **Ustiategiaren titularrak diren emakumeen proportzioa ez datorrela bat emakumeek haietan egiaz egiten duten lanarekin**, izan ere, askotan, lan horiek guztiz ikusezinak bihurtarazi baitira.

Beraz, lege honen lehentasunetako bat da **emakume baserritarrek ustiategiaren titulartasuna eskura dezaten** sustatzea, haien lana ikusarazteko eta lan horren ondorio diren eskubide guztiak lortu ahal izateko.

Beharrezkotzat jotzen du aldi berean, neurriak hartzea, emakume eta gizon gazteen egiazko berdintasuna sustatzeko eta emakume gazteek lan-aukerak izateko, hala nahi badute landa-inguruneetan jarraitu ahal izan dezaten.

Aldi berean, nekazaritza arloko erabaki-**organoetan emakume baserri-tarrek presentzia izatea eta parte hartzea** bermatu behar dela jasotzen du legeak. Esparru publikoan duten partaidetzan emakumeek jasaten dituzten desberdintasunei aurre egitea ezinbestekoa izanik.

**Zereginak banatzeari** buruz ere hitz egiten du. Emakumeak lan-merkatuan sartzeari ez dadin izan lan-zama gehigarri bat, kasu askotan emakumeek ia osorik hartu dituzten etxeko lanei eta zainketa-lanei gehituta.

Beste alde batetik dio, baserriarren laneko arriskuen prebentzioa gizonetzkoen osasunari kalte egin diezaiekeen alderdietan oinarritu dela beti eta emakumeen eta gizonen osasunaren gaineko faktore bereizgarriak aintzat hartu behar direla, **nekazaritzako lanean emakumeen osasuna bermatzeko** neurri egokiak hartuaz.

Azkenik, nekazaritza arloan gertatzen diren sexu-jazarpen eta jazarpen sexista kasuei aurre egiteko dagozkion neurri guztiak abiaraztea ezinbesteko zeregintzat jotzen du.







**E**statutua existitze hutsa berez positiboa dela pentsa daiteke, zegoen hutsune bat betetzen duelako alde batetik, eta urte luzeetako borrokaren ondorio eta errebindikazio historikoa izan delako bestetik. **Asmo adierazpen ona da**, oso generikoa baina artikulua zehatzetan gauza interesgarriak aipatzen dituena.

2025 en hamar urte betetzera doan arren, oraindik ere, eta Estatu-tuan jasota azaltzen diren puntu batzutan aurrera pausoak eman diren arren, emakume baserritarren bizimoduan eragin ditzakeen **aldaketei bide emateko garatu egin behar** dena eta aurrekontua eta baliade ekonomikoak jartzea eskatzen duena. Honez gain, informazio kanpaina indartsu bat behar duena dagoeneko martxan dauden neurri guztiak jasoko dituena.

Hasteko eta behin, adierazgarria da estatutuaren ezagutza urria. 2022. urtean Bizkaiko Foru Aldundiaren inguruguro eta Jasangarritasun departamentuaren eskariz eginiko “ Estudio sobre la situación de la mujer en el sector rural de Bizkaia” ikerketan plazaratzen diren datuen arabera, **Bizkaiko lehen sektorean lan egiten duten emakumeen % 69ak ez du inoiz entzun Emakume Baserritarren Estatutuaren inguruan hitzik.**

Iturri beraren arabera Estatutuaren berri izan duten emakumeen artean berriz, % 6,7 ak bakarrik dio dextentetan edo askotan entzun duela Estatutuari buruz hitz egiten eta gainerantzeko %93,3 ak gutxi edo oso gutxi ezagutzen duela dio.

Zehaztasun gehiagorekin arakatzuz gero, eta beraeintzat Estatutuak di-tuen bi alderdi garrantzitsuenak aipatzeko eskatuta, emakume hauen %2,5 ak bakarrik jakin du alderdiren bat aipatzen. Titulartasun parte-katua eta sektoreko ordezkari-tza organoetan emakumeentzako kuota minimoak izan dira gehien errepikatutako alderdiak.

Edonola ere, 2021 ean Emakunderen babesarekin egindako “Or-dezkatuak eta ikusgarriak” lanean aipatzen den moduan, ikerlan hau egiteko topaketa kolektiboetan parte hartu zuten emakume askok, uste dute salbuespen gutxi batzuk kenduta Estatutua onartu zene-tik ez dela hedapen eta lanketa-proposamenik egin ez elkarteen ez administrazioaren aldetik. Eta etorkizunari begira ere, Emakume Ba-serritarren Estatutua ez bada ulertzen, bere aukera eta indarguneak ez badira ezagutzen, zaila ikusten dute bere aplikazioa. Adierazten dute 2015 ean, **indarrean sartu zenetik hasita sentsibilizazio kanpai-nak egin behar zirela** sektorean bere osotasunean eta sektoreko eragileekin.

Goian aipatu diren eta Bizkaiko ikerketan emakumeek garrantzit-zuenentzat jotzen dituzten bi alderdien ingurukoak aztertzen ha-sita, kasualitatea izan edo ez, dirulaguntzetan diskriminazio positi-borako neurriez gain bi hauek dira Estatutuan jasotakoetatik garatu diren bi alorrak.

Esaterako sektoreko ordezkari-tza organoetan emakumeek bete behar duten kutoa minimoen kasuan, diotenez, honek emakume askoren egoera zuzenean zeharkatzen du. Emakumeen presentzia behar denez organo hauetan, emakume berari hainbat organo edo batzordetan egotea tokatzen zaio askotan baina joaten direnerako erabakiak hartuta daude. Ez dakite ondo zer egiten duten hor eta horrek ere tristura sortzen du. Aurretik lanketa eta sentsibilizazio kanpainen falta sumatzen dute benetako aldaketei bide emateko eta euren parte hartzea osoa eta baliagarria izateko.

Ikerketan parte hartu duten entitate eta elkarteen aldetik, euretako askok lanketa egin dutela adierazi dute bai informazioa helaraziz, bazkide diren emakumeei batzordean parte hartzeko deituaz, emakumeekin bilduaz euren parte hartzearen garrantziaz kontzientzia hartzeko, eta kasu batzuetan emakumeek erakundeko batzordeetan parte hartzera animatzeko asmoarekin ezagutu ez ditzaketen alderki batzuei buruzko prestakuntzan lagundu diete.

Kasuren batean gainera egindako lan honek **ez omen du ekarri esperotako emaitzik**. Izan ere, diotenez emakumeekin lan egin, batzordean parte hartzera animatzen ahalegindu, emakumearen izena jarri batzordean baina senarra da batzordera joaten dena.

Edonola ere, elkarrizketatutako emakumeen %48 ak erantzun du bearaiek batzordeetan parte hartzean Estatutuak eragina izan duela, dirulaguntzak medio. Elkarrizketatutako entitateen aldetik, era berean, aldaketak legera egokitzeko beharragatik egin direla izan zen gehien errepikatutako erantzuna.

Administrazioaren helburuekin ere zalantza adierazi dute emakume hauek. Esaterako inkoherentziazat ulertzen da, oinarri oso produktibista eta kapitalista sustatzea alde batetik eta emakumea organoetan egotea bultzatu nahia.

Eredu hori zuzenean emakumearen kontra baitoa eta ez da hausnarketa sakonik planteatzen. Garrantzitsua ikusten dute hala ere elkarrizketatutako batzuk, emakumea organoetan egotea espazio horietan irakurketa kritikoa entzunarazteko.

Emakumeek sentitzen dute beraz, ez dela sakoneko lanketarik egiten. Diotenez batzuetan emakumea sartzen dute legea betetzeko baina bere iritzia kontuan hartzeko asmorik gabe.

**Garrantzitsutzat jotzen dute jarraipena egitea estatutuaren garrapenari**. Emakumeen ordezkaritza parekatzeak benetan beste era batera funtzionatzea ahalbidetzen duen ikustea. Ea harremanak berdinetik berdinerakoak diren, ea bermatzen den beste aire bat eta beste berdintasun bat. Eta oso zaila irizten diote ezer aplikatzeari baliabiderik gabe eta jarraipena egiteko jenderik ez badago.

Urte hauetan garapen-neurriak jarri diren bigarren puntua **titulartasun partekatu**arena izan da. Esan dezakegu figura horri **oso ustiategi gutxik heldu diotela lege hau** 2011n indarrean sartu zenetik. Izan ere, lege hori onartu zenerako, emakumeek beste figura batzuetara jo zuten, hala nola Elkarte Zibilera edo Ondasun-Erkidegora. Formula errazagoak eta eskuragarriagoak baitira.

Gainera, uste da ez dela figura bera ezagutzera eman, sentsibilizazio-kanpainak urriak izan direla edo ez direla egin, eta batzuetan informazioa ez dela azken hartzaileetara iritsi, ez baita kontuan hartu landa-inguruneko emakume batzuek, emakume zaharrenek, informazioa eskuratzeko duten zailtasuna, eta, hain zuzen ere, beraiek lirateke figura honetatik onura handiena atera lezaketanak izango ziurrenik.

Bestalde, **gizonei zuzendutako informazio kanpainarik ez dela burutu** uste da. Eta hau ezinbestekoa da aldaketa egitearen garrantzia ikus dadin.

Emakumeek informazioa eskatu dutenean figura horri heltzea interesgarria izango litzatekeen baloratzeko, ez dute beti informazio nahikoa lortu aldaketa egiteko eman behar dituzten urratsak zein diren jakiteko, ezta Elkarte Zibilarekin edo Ondasun Erkidegoarekin alderatuta izango lituzketen abantailak zein izango liratekeen jakiteko ere. ENBetako, Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako langileentzako prestakuntzarik ezak, eta gestioak non egin eta zer kudeaketa egin jakiteko gida argi eta didaktikorik ez izateak, tramitazio zailaz gain, hasiera batean informatzera animatuta zeuden emakume batzuen interesa galtzea eragin dute.

CERESek eta COAGek 2017an idatzi zuten txostenean, emakume baserritarrentzat benetan baliagarria izango zen Titulartasun Partekatuaren Legea garatzeko eta aplikatzeko urrats batzuk azaltzen ziren. Bertan aldarrikatzen zuten **Titulartasun Partekatua ofizial izan behar duela**, hau da, ezkonkide bakarra titular duten nekazaritza-ustiategi guztiak Titulartasun Partekatua izatera igarotzea, eta epe bat ematea baimena adierazteko edo titulartasun bakarra izaten jarraitu nahi dutela jakinarazteko. Neurri horrek legearen eraginkortasuna bermatuko zuela uste zuten.

lido horretan, eta EAera itzulita, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako 17/2008 Legearen 76. artikulua titulartasun partekatuari buruz hitz egiten du. Erregistratutako eta titulartasun fisikoko ustiategi batean nekazaritza-jardueran zuzenean eta modu pertsonalean senar-emazteek edo izatezko bikotekideek egiten badute lan, ustiategi horren titulartasunak titulartasun partekatuaren figura juridikoa hartuko duela dio. Baina artikulua hori baliorik gabe geratu zen 2015ean, Emakume Baserritarren Estatutua onartu zenean.

Bete gabe dauden beharrei buruz hitz egiten badugu berriz:

1° Bizkaiko ikerketan parte hartutako emakumeek gaur egun garrantzi gehien ematen diotena **familiako bizitza, lana eta maila pertsonalaren artean kontziliazioa lortzeko laguntza eta neurriak** sustatzea da.

2° Jarraian **lehen sektorean lan egiten duten emakumeek egiten dutan lanari aitortza gehiago egitea** eta balorean jartzea litzake. Aitortza soziala eta instituzionala, eta era berean ahalduntzea eta parekidetasuna sustatzea.

3° **Bajen baldintzak hobetzea** da hirugarren lekuan jartzen duten alorra. Batez ere, amatasunaren kasuan bajak luzatu ahal izatea.

4° **Emakumei informazio, formazio eta aholkularitza hobea eskaintzea** ere behar garrantzitsutzat jotzen dute oraindik. Bai dirulaguntzen kasuan, zein edozein tramite egiteko orduan ere, administrazioaren inguruan eta baita kudeaketa eta teknologia berrien inguruan ere.

5° Beste behar batzuk ere aipatzen dituzte, besteak beste, **jubilazioari** begira lan baldintzak hobetu ahal izatea edo...

6° **Denbora libre gehiago** eta oporrak izatea.

Ikusten dugu beraz, legea oraindik ere puntuz puntu hartu eta garatu gabe dagoela. Plan eta programa zehatzak egitea eskatzen du puntu bakoitzerako eta baliabideak jartzea hauek garatu daitezten. Esaterako, kontziliazioari buruz hitz egiten du legeak bere 22. arti-

kuluan eta gaur egunean badaude ordezkapen zerbitzu gutxi batzuk, baina kasu askotan emakumeek ez dituzte eskatzen. Kasu honetan, gizonen zuzenduriko informazio eta formazio lana ezinbestekoa litzake, zaintzan parte har dezaten eta ardura benetan partekatu ahal izan dadin. Baina zentzu honetan doan lanketarik ez da martxan jartzen legearen garapenean.

Osasunaren inguruan hitz egiten du 23. artikulua, emakume eta gizonen arteko diferentziak kontuan izatea lanabes, lan-prozesuak... diseinatzeko orduan eta arriskuen prebentzioarako araudia aplikatu beharraz besteak beste. Baina **ez du jasotzen nekazaritza ereduaren inguruan inolako aipamenik ez eta honek emakumeen osasunaren duen eraginaren ingurukorik ere**. Ez dio bultzatzen ari garen nekazaritza ereduaren inguruko gogoetari bide ematen.

24.artikulua berriz, emakumearen aurkako indarkeriari eta jazarpen sexistari buruzkoak, era berean, honi aurre egiteko garrantziaz hitz egiten du eta neurriak hartuko direla dio baina **ez da neurri zehatzik plateatzen benetan**.

Hurrengo artikulua 25. ak formazioaren gaia jasotzen du eta goian irakurri ahal izan dugun bezala, inkestan parte hartutako emakumeek oraindik ere, formazioa, informazioa eta aholkularitza bete gabeko behar bezala identifikatu dituzte. Honek ulertzera eman dezake beraz, edo ez dela behar adina egiten edo emakumeentzat egiten den formazioak ez diela egiazki euren behar eta interesei erantzuten.





## 8. Azken burukoa

Honainokoak irakurri eta aztertuta, ondoriozta daitekeena da, emakume baserritarren edo nekazariaren baldintzak hobetzeko asmoarekin egin zen estatutu hau, bere eratze prozesuan gora beherak izan arren, emakume baserritarren aldarrikapen eta nahi istoriko bati erantzuna ematera etorri dela.

Emakume baserritarren egunerokoa eta egoera hobetzeko tresna baliagarria izan daiteke, [asmo deklarazio moduan nahiko osatua baita eta istorikoki emakume hauek egindako aldarrikapen gehienak jasotzen baititu.](#)

Baina, puntuz puntu hartu eta plan eta programa zahatzetara jeisten ez bada eta baliabide eta neurri ekonomiko jakinak atxikitzen ez bazaizkio, [asmo deklarazio hutsean eta propagandarako artikulua sorta batean baino geratuko ez dena.](#)

Honez gain, bere garapenerako emakumeen interesa eta euren behar eta ulertzeko modutik begiratuta garatzen ez bada, bestela esanda, irakurketa feminista bat egiten ez bada, zaila izango da erabilpenik lortzea eta emakume baserritarrentzako baliagarri izatea, izan ere, emakume baserritarrek alde batetik ez dute ezagutzen eta bestetik ez dute beraien intereseko ikusten.

Hau egiten ez den bitartean, orain gertatzen den bezala, gehiago eza gutuko dute agian Bruselaseko edo New Yorkeko hitzaldiren batean

entzun duten instituzioetako langileek, benetan Euskal Autonomi Erkidegoko landa gunean lanean ari diren emakume baserritarrek baino.

Lan honetan zehar jaso diren emakumeen hitz ezberdinei arreta jarriz gero, uler daiteke, emakume baserritarrek euren egunerokoa hobetzeko ahaleginak egiten dituztela eta instituzioen aldetik ere eskatzen dutela ahalegin bat baldintzak hobetu eta duten balorea aitortua izateko. Instituzionalki edo lege aldetik Estatutua tresna moduan eskatzen zutela horretarako eta aldarrikapen ugari zituztela bertan sartzeko eta itxaropena ere bazutela jarria Estatutuan.

Aldarrikapen asko jasoak izan dira azkenean estatutaren testuan eta orain emakume hauei traiziorik ez egiteko borondatea eta estatutu honen garapena lehenetsunezko gaitzat hartzea falta da, sakoneko lanketak planteatuaz. Lortu nahian gabiltzan gizarte justuago eta parekideagoaren bidean ahaztu ezin dugun sektorea baita lehen sektorea ere.

*"Zahatzetara jeisten ez bada eta baliabide eta neurri ekonomiko jakinak atxikitzen ez bazazkio, asmo deklarazio hutsean eta propagandarako artikulu sorta batean baino geratuko ez dena"*

*"Irakurketa feminista bat egiten ez bada, zaila izango da erabilpenik lortzea eta emakume nekazarientzako baliagarri izatea"*

*"Aldarrikapen asko jasoak izan dira azkenean estatutaren testuan eta orain emakume hauei traiziorik ez egiteko borondatea eta estatutu honen garapena lehenetsunezko gaitzat hartzea falta da, sakoneko lanketak planteatuaz"*



## 9. Estatutua garatzeko proposamen zehatz batzuk

### 1 Puntu edo artikuluko bakoitzerako plan eta programa zehatzak egitea eta horiek garatzeko baliabideak ematea.

- > Dirulaguntzak eskuratzeari buruzko prestakuntza, informazio- eta aholkularitza-gune gehiago eta kontziliazioari lotutako laguntza espezifiko gehiago sustatzea (22. artikulua).
- > Erakundeen eta emakume baserriar antolatuen arteko eztabaida-guneak sortzea, estatutua ezartzeko neurriak adosteko eta neurri horiek nekazaritza-politiketan sartzeko (adibidez, NPB), estatutua politika sektorial horietatik ezar dadin (23. artikulua).
- > Emakume baserriarren familia, lana eta bizitza pertsonala uztartzeko baldintzak hobetuko dituzten politika publikoak bultzatzea, bai landa eremuan garraioko, osasuneko eta hezkuntzako zerbitzuekin lotura daudenak, bai eta autonomo gisako kotizazio-ereduak, nekazaritza-jarduerara egokitu direnak (23. artikulua).
- > Sindikatuen eta administrazioaren artean eztabaidarako guneak sustatzea, gutxienez partaidetzaren % 50 emakumeak izanda, eredu agroekologikoak bultzatzera eta tokiko elikadura-sistemak bultzatzera egokituko diren neurri eta araudi berriak sustatzeko, amatasun-bajei, erretiro-baldintzei eta oporregatik ordezkapenari lotutako lan-eskubideak hobetzeko (23. artikulua).
- > Erakundeei eta sindikatuari antolamendu-aldaketako prozesuak egiten lagunduko dieten neurri ekonomikoak izatea. Neurri horietan, maskulinitateen eta erantzukide-

tasunaren inguruko prestakuntzak, genero-erasoen eta sexu-erasoen aurkako protokoloak, berdintasunerako barne-politikak eta emakumeentzako gai politiko eta teknikoetan prestakuntza espezifikoak sartuko dira (24. artikulua).

> Landa-ingurunean emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko kanpainak egitea. (24. artikulua).

> Prestakuntza, informazio- eta aholkularitza-gune gehiago sustatzea dirulaguntzak eskuratzeari, administrazio-izapideei, kudeaketari eta teknologia berrien erabilerari buruz (25. artikulua).

> Emakumeek gidatutako proiektuei ekarpenak egingo dioten neurri ekonomikoak; nagusiki parte hartzea emakumeena denean, lurra bezalako ondasunak eskuratzeko, instalazioko lehen urteetan gizarte-segurantzako ordainketak egiteko, etab. (25. artikulua).

## 2 Estatutua ezagutzera ematea, eta emakume baserriarren lana ikusaraztea

### Emakume baserritarrei zuzendua

> Sektoreko emakumeei zuzendutako kanpaina. Euren espazio naturalera iritsi eta Estatutua ezagutzera eman. Kasu bakoitzean onuragarriak izan daitezkeen alorretan aholkularitza pertsonalizatua emanaz.

> Gizonei zuzendutako informazio, sentsibilizazio eta formazio-lana, zaintzan eta erantzukizunean parte har dezaten.

> Estatutuaren eta martxan jartzen ari diren neurri zehatzen inguruan berri emateko ekintzak, probintziak eta baita eskualde nagusika ere.

### Administrazioetako langile teknikoei zuzendua

- > Administrazioko langile teknikoentzako prestakuntza-prozesuak, hauek emakume baserritarrei laguntzeko eta beraeuk artatzeko gaitasuna hobez dezaten.

### Gizarte osoari zuzendua

- > Irismen handiko kanpaina instituzionalak sortzea, estatutua, beronek biltzen dituen artikulua eta honek emakume baserritarren lan-baldintzak eta baldintza pertsonalak hobetzen nola lagun dezakeen ezagutarazteko.
- > Emakume baserritarren lana aitortzeko kanpaina instituzionalak.
- > Estatutuaren berri ematea eskoletan, nekazaritza-eskoletan, institutuetan eta unibertsitateetan, bai eta emakume baserritarren lana ikusaraztearen eta aitortzearen garrantzia ere.
- > Estatutua ezagutarazteko materialak.



# BIBLIOGRAFIA

**Aldai Arrillaga, J.A.** (2017) *Baserria biziari eusteko lanak. Nekazaritza sindikalismoaren historia bat.*

**Ardatza** aldizkaria. 1997-2006.

**Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila.** *Landaren eta Itsasertzaren Garapenaren eta Europar Politiketako Zuzendaritza.* (2016) *Las Mujeres en el sector agrario vasco: Agricultoras.*

**Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzako Estatistika Organoa.** (2020) *Mujeres en el Medio Rural Vasco.*

**Etxalde** aldizkaria.

**Etxaldeko Emakumeak.** (2017) *Legeen azterketa ikuspegi baserritar eta feministatik.*

**Etxaldeko Emakumeak.** (2017) *Elikadura burujabetza eta feminismoa eskutik*

**Etxaldeko Emakumeak.** (2020) *Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) eta Europako Itun Berdea*

**Milikua Larramendi, L.** *EMAKUNDE*rentzat egindako lana. (2021). *Ordezkatuak eta ikusgarriak. Nekazal Emakumeen parte hartze eta ordezkaritza sektoreko erabakiguneetan.*

**Milikua Larramendi L.** (2022) *Lur gainean, itzal azpian. Emakume nekazariak eta parte hartzea.*

**Siadeco** ikerketa aplikatua. Bizkaiko Foru Aldundiarentzat egindako lana. (2022). *Estudio sobre la situación de la mujer en el sector rural de Bizkaia.*

**Larrea Aldama N.** Hazi fundazioarentzat egindako txostena.

**17/2008 Legea.** Abenduaren 23 koa, *Nekazaritza eta Elikagaigintza Politika.*

**8/2015 Legea.** Urriaren 15ekoa. *Emakume Nekazarien Estatutuari buruzkoa.*